IRAKASGAI BATERAKO GAITASUNETAN OINARRITUTAKO EBALUAZIO SISTEMA BATEN DISEINUA

ECTS kopurua: 1 **Kodea: EG206**

Hartzaileak

Tailer hau irakasgaietako koordinatzaileei eta irakasle taldeei zuzenduta dago. Hau da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren hobekuntzan, batez ere graduko irakasgaietako gaitasun bidezko ebaluazio sistemaren hobekuntzan, ardura duten irakasleei taldeei.

Sarrera

Gaitasunen edo/eta ikaskuntza-emaitzen bidezko ebaluazioa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko alderdi garrantzitsuenetakoa da. Irakasgai baten planifikazioak garatuko diren gaitasunen, erabiliko den metodologiaren eta ebaluazioaren arteko koherentzia estua eskatzen du.

Tailer honen helburua da, parte-hartzaileek irakasgai baterako IKD ereduarekin bat datorren ebaluazio sistema bat diseinatzea. Ebaluazio sistema honek irakasgaiko gaitasunak/ikaskuntza-emaitzak kontuan hartuko ditu, eta ebaluaziorako erabiliko diren dinamiketarako tresnak, irizpideak eta ponderazioak bere gain hartuko ditu. Bestalde, ikasleei lortu duten gaitasunen garapen mailaren emaitzen komunikazioa eta berrelikadura bideak ere azalduko ditu. Guzti hau, UPV/EHUko kalitate irizpideak eta arautegiak zehazten duena kontuan hartuta, irakaskuntza gidan idatziko da.

Tailer honek gaitasunak / ikaskuntza-emaitzak ebaluatzeko estrategiak eta tresnak landuko diren ikastaro multzoari hasiera ematen dio.

Ikastaroan garatu diren gaitasunak

1. Irakasgai bateko irakas-gidan agertzen den ebaluazio sistema oinarritzen duten gakoak argumentatzen jakitea.
2. Ebaluazio sistema osatzen dituen gakoen hobekuntzarako beharrak identifikatzea.
3. Irakas gidan agertzen den eta irakasgaiko gaitasunekin eta metodologiarekin bat datorren ebaluazio sistema diseinatzea/berregitea.

Metodologia

Tailerra aktiboa eta dinamikoa izango da. Gogoetarako egokia den testuinguruan, ebaluazio sistemen azterketarako eta hobekuntzarako taldeko eta banakako jarduera egingo dira.

Gaitegia

- Gaitasunen bidezko ebaluazioa goi mailako hezkuntzan: kontzeptualizazioa.
- Ebaluazio motak. Ebaluazio formatiboa.
- Ebaluazio sistemaren diseinurako kalitate irizpideak. Ebaluazio arautegia.
- Ebaluazio sistema irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Gaitasunen/ ikaskuntza-emaitzen, metodologiaren/jardueren eta ebaluazioaren arteko koherentzia.
- Ebaluazio sistemaren egitura eta elementuak.
- Ebaluazio tresnak. Irizpideak.
- Emaitzen jakinarazpena eta berrelikadura.

Eginkizunak

Gaitasuna	Jarduera mota	Iraupena
1 y 2	- Saioetan parte hartzea. Txostena egitea.	4 P + 4 NP
3	- UPV/EHUko arautegiarekin, IKD ereduarekin eta tailerrean egiten denarekin bat egingo duen irakasgai baterako ebaluazio sistema espezifiko bat garatzea.	4 P + 13 NP

Ebaluazioa / Akreditazioa

Akreditazioa lortzeko bete beharreko baldintzak:
-Saio presentzial guztietara joatea.
-Ikastaroan eskatzen diren jarduera guztiak entregatzea.

Gaitasuna	Ebaluazio tresna	Ebaluazio irizpideak	Ehunekoa
1 y 2	1. txostena: a)Egungo ebaluzio sistema identifikatu eta oinarritu ondorengo irizpideak kontuan hartuta: dituen oinarrizko elementuak eta metodologiarekin, gaitasunekin/ikaskuntza-emaitzekin duen koherentzia. b) Hobekuntzak proposatu.	Koherentea Egingarria Erabilgarria	30%
3	2. txostena Ikasketa emaitzetan / gaitasunetan oinarritutako ebaluazio sistema baten diseinua / birformulazioa.	Koherentea Egokia Eskatutako atalak betetzen ditu Estruktura eta aurkezpen formala	70%

Datuak

Iraupena

Aurrez-aurreko 8 ordu (P) eta 17 ordu ez presentzial (NP)

Datak

2019ko urtarrilaren 10ean eta 17an

Ordutegia

9:30 – 13:30

Lekua

Carlos Santamaria Zentroa, 4 gela

Parte-hartzaile kopurua

25 gehienez

Hizkuntza

Euskara

Campusa

Gipuzkoa

Irakasleak

Pilar Gil eta Esther Cruz (SAE/HELAZeko formatzaile taldea).

Izena emateko epea

2019ko azaroaren 27tik abenduaren 5era, biak barne

Izena emateko baldintzak

Izen-ematea Langileen Atariaren bidez egingo da. Plaza kopurua mugatua denez, I mailako kontratua duten irakasleen izango dute lehentasuna. Horrez gain, partehartzaileen hautaketa izen-emate ordenaren, hautaketa lehentasunaren eta kanpusaren araberakoa izango da.

Matrikularen ezeztatzea

Tailer honetara bertaratzea ezinezkoa den kasuetan, gutxienez, 72 orduko aurrerapenaz berri ematea eskatzen da. Horrela, plaza hori kanpoan gelditu den beste bati emateko aukera egongo da.